

II.—Azkue jaunak lan polit eta aratza irakurri digu: *Curiosidades morfológicas de Barambio* ta egiaz efi ontan dabilzan itz bereziyak ta adizkera bikain batzuek ederki ta ederki azaltzen ditu.

III.—Etxegarai jaunak irakurri digu: *Nombres vascos de los espacios intermedios entre casas*. Epaille artean ta auzi-arazotan ibili litezken itzak lan onek zerbait ere befitzen dizkigu ta Euskaltzaindiaren lan-etan sartzen da itz aben ardurapena. Gure *Euskera*'n azalduko da Etxegarai jaunaren lana.

IV.—Eguskitza jaunak Mogel-engandik eteratako itz eta adizkerak ekañi dizkigu. Mogel Jose Antonio' ren *Catecismo*'tik.

Ta beste gai batzuek bigaramonerako utzi-ta otoi-tzez amaitu da batzañaldi au.

Bilbo'n, Euskaltzaindiaren etxean, 1927'ko Jo-raila'ren 29'an.

Auruko batzañaldian aipatzen diran euskaltzain eta ordeko berak datoz. Otoitzez asi da batzañaldia.

I.—Olabide jaunak idoro ditu orainarte entzun ez diran euskal-aditz abek *ekidin* eta *idin*: biyak Leiza-raga ta Axular'ek badakarzkite.

II.—Azkue jaunak lan eder-eder bat irakurri digu: *Apéndice al estudio del subdialecto aezkoano*. Lan iu Napañoa'ko *Euskeraren adiskideak*'ri eskañiya dago. Ona emen lan oñen atalak: a) amairu ipui; b) Aezkoako lamiñak; d) oitura ta aztikeriyak; e) atzofitz ta esakerak; g) ume solasak; i) abesti-zañak ta azke-neko iru ataletan *fonetikako* gauzak, adizkerak eta oraïndik iztegez bildu gabeko itzak.

III.—Euskaltzaindiak erabaki du Motrikun egingo dan *Euskal-egunera* joatea, bere ordezko jafirik Azkue ta aita Intza jaunak. Liburu batzuek banatuko dira ango mutil eta nexka artean.

Lekarotz'ko euskal-azterketara ezin joan liteke euskaltzain ordekorik, bañan ango mutil artean ere liburu batzuek zabalduko dira.

Ta beste gairik izan ez da otoitzez amaitu da batzaraldi au.

Donostia'n, Aldundi-Jauregian, 1927'ko Oñia'ren 27'an.

Batzañaldi ontara euskaltzain jaun abek datoz: Azkue, Kanpion, Urkijo, Londéretxe, Eguskitza, Olabide, Intzagarai, Intza, Lakonbe, Etxegarai ta Muxika ta Garitaonandia euskaltzain ordekoak. Otoitzez asi da batzañaldia.

I.—Aita Iraizoz'ek Bähr jaunarekin egin bear duen Schuchard'en lanerako, Iraizoz'i biali bear zayo Schuchard beronen idazti alemandara.

II.—Azkue jaunak esan digu Bizkai-Aldundiari eskatu ziyola len, alako toki bat Euskaltzaindiarentzat ta agindu ziyotela gerorago. Orain da erafi ona eskariya beritzeko ta eskari ori egitea erabaki da.

III.—*Batasunerako bidean* agergalu jafi-ta, Azkue jaunak irakuñi digu bere lan bat. Muxika jaunak idatzi duen *Pernando Amezketara* dala-ta. Oarpide batzuek egiten dizkiyo Azkue jaunak Muxika jaunari; onek aitzakotzat ta eskerbidez artzen dizkiyo, batez ere beste elastaldi bat egin bear daneko gogoan arturik.

IV.—Urengo batzañaldirako ekañiko da, r gogor ta r bigunaren txosten bat.